

## Norberaren Agenda 21: Iraunkortasunarekin dudak konpromisoa

Pertsonak ingurune eta etorkizun hobea lortzen laguntzea



Agenda 21, Lurraren Goi Bileran (Rio de Janeiro, 1992) egin eta onartu zen agiria, erreferentzia bezala hartuz, bere integrazio eta iraunkortasunaren ikuspegia herritarrengana ahalik eta erarik hurbilenean eraman nahi da; hau da, pertsonengana.



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación Foral  
de Bizkaia


### Zer da Norberaren Agenda 21?

Poz handiz ikusi dugu **Agenda 21** baliabidea (*Ikus informazio gehiago Jakin eta Jardun «Tokiko Agenda 21: nire udalerrian jardunez»*) planeta guztian zehar eta hainbat jardura mailatan erabiltzen ari dela. Estatu eta eskualde gobernuen estrategietatik eskolako Agenda 21etara parte-hartze prozesu asko zabaltzen ari dira jardura planak diseinatzeko, eta ondorioz, neurriak hartzeko.

Ingurumenari historikoki kalte gehien egin dioten enpresak ere beren kudeaketaren norabidea aldatzen hasi dira, eta ingurumen hobekuntzaren ziurtagiriak lortu dituzte garai berrietara egokitzeko. Instituzio, erakunde eta enpresa horien oinarrian pertsonak daude.

Pertsonak osatzen dituzte familia unitateak, komunitateak eta gizarteak. Horregatik, funtsezkoa da pertsonak beraiek bere barnean eta kide direneko lekuen barruan (familia, eskola, enpresa...) iraunkortasun pro-

#### 1. irudia. Noreberaren Agenda 21en jatorria EAEn




Iturria: Geuk egina.

zesu bat hastea, **Norberaren Agenda 21** moduan. Jarrera informatu, kontziente eta proaktiboa hartzeak bizitzaren beste ikuspegi edo filosofia emango die.

Pertsonak izan bagara gure erabaki eta ekintza txiki edo handiekin arazoak sortu ditugunak, geuri dago-kigu ahal dugu mailan akatsak eta gabeziak konpontzeko eta/edo behar diren irtenbideak emateko positi-boki jardutea. Geure **Norberaren Agenda 21** abian jartzeak gure bizitza estilo berria edo iraunkorta-sunaren filosofia hartzea ahalbidetuko digu. Balio berriez betetako jarrera honek herritar bezala moldatzen garen eremuetan gauzak hobetzen lagunduko digu: etxean, eskolan, lantokian, aisian, sarri joaten garen erakundeetan, eta abar. Guztiok izan gaitzke mundu hobea gorantz igarotzeko aldaketaren eragile.

## 2. irudia. Norberaren Agenda 21 en aplikazio eremuak



Iturria: Geuk egina.

## Nola antola dezaket nire Agenda 21?

Lanean hasteko erabakia hartu ondoren, hainbat pauso eman behar dira: lehenbizi, gure eguneroko ohi-turei buruz hausnartu; gero, hobetu behar diren alderdiak edo egin behar diren ekintza berriak antzeman; eta, azkenik, gure eguneroko bizitzan erabiltzen hasiko garen ideiak apuntatu. Lan hori errazteko, gure **Norberaren Agenda 21** prestatzeko oinarritzko orientabide batzuk proposatzen dira jarraian (l. eranski-na):

- **Informatu eta jardun.** Garapen iraunkorrari buruz, Agenda 21i buruz edo bidezko merkataritzaren, biodibertsitatea babestearen edo genero arrazoiengatiko ezberdintasunak eraztearen alde hasi ditzakegun ekintzei buruz informatu. Informazio hori udal zerbitzuetan, zure komunitateko gizarte erakundetan edo, hala badagokio, interneten aurkitu ahal izango duzu.
- **Iraunkortasunean jarduten dutenak.** Aiene eta utzikeria fasea gainditzeko, lanean hasi gaitzen eta iraunkortasunean jardun dezagun beharra, aukera edo arrazoi ona ikusten dugun lekuan.
- **Nire parte-hartzea garrantzitsua da.** Nire ekintza arduratsuek ondorio onuragarria dute jada nigan eta nire inguruan. Ekintza positiboen erakusle den efektuak gure inguruan kate-erreakzioa sor dezake eta emaitza pentsaezinak eragin ditzake.
- **Egunerokotasunetik hasi.** Gure eguneroko jarduerak zerikusi handia du gure ongizatearekin eta gure ingurunearen osasunarekin. Etxean, lanean, eskolan edo aisialdian egiten dugunari buruz gogoeta egin dezagun.
- **Ingurumen heziketa positiboa.** Ingurumenaren ikuspegi ezkorretik harantz, pertsonen bertuteetan, ondarean eta inguratzen gaituen paisaian arreta jarri behar dugu. Askok dugunaren eta hori guztia mantentzeak, hobetzeak eta gozatzeak merezi duenaren ikuspegiarekin hasi gaitzen lanean.
- **Herritarren eredu izan.** Geldirik geratzen bagara, besteek ere itxaroten geratzeko tentazioa izango dute. Lanean hasten bagara, ondarea babesteaz eta baliabideak zuzen erabiltzeaz arduratzen direnak edo arazoak sortu dituztenak ezingo izango dira besoak gurutzaturik geratu.
- **Elkarrekin lan egitea oso ona da.** Kezkak baditugu, baina bakarrik hasten ez bagara eroso sentitzen, taldean lan egiten hasi gaitzke. Gizarte erakundeek ekimenei ematen dieten laguntza, udaleko eztabaida bileratan edo natura aztertu eta defendatzeko ikasketa taldean parte hartzea, eta abar, aukera onak dira.
- **Zure kasa lan egitea nahiago baduzu.** Erakundeekin edo taldeko lanarekin esperientzia positiboak izan ez badituzu, goiari eutsi eta zure kasa jarraitu. Gehiegi saiatu nahi ez badugu, betiere jarraibide erraz batzuk aldatzen lan egin dezakegu eta/edo ezagutzen eta baloratzen ditugun gizarte erakundeak diruz lagunduz.
- **Toki eta mundu mailan pentsatu, baina zure mailan lan egin.** Hobetu ditzakezun gauzak identifikatu eta proposatu zure eskueran daudela uste dituzun ekintzak. Gertuko gaiak dira zuretzat garrantzitsuenak, baina konturatu gabe, maila askoz ere zabalagoan esku hartzen eta eragiten egongo gara.
- **Noizbehinka alde onak eta txarrak azter ditzagun.** Konplikatu eta nekatu beharrik gabe, gomendagarria eta onuragarria da aurreratu duguna berrikustea eta horri buruz hausnartzea. Animatzen bazara, zure etxeko oinatz ekologikoa kalkula dezakezu. Lortutako emaitzek emandako pozarekin beste aurre-erapauso bat emateko prest egongo gara.

## 3. irudia. Lanean hasteko 10 ideia errez

1. Ez suntsitu natura baliabideak, ez xahutu zure dirua.



2. Elikagai freskoak, tokikoak eta kalitatezkoak jan. Behar duzuna tokikoa ez bada, bidezko merkataritzako produktuak bilatu.



3. Zure erosketetan behar ez diren hondakinak ekidin, frakzioak bereizi eta dagokion edukiontzietan utzi.



4. Zure jakintza, denbora, elkartasuna eta irribarra partekatu.



5. Frijitzeko olioak ez bota komunetik edo harraskatik, pote edo botila batean jaso eta dagokion lekuan utzi.



6. Zure norakora oinez edo bizikletaz iritsi ezin baduzu, garraio iraunkorra erabili. Autoa hartu behar baduzu, ahalik eta bidaiari gehien eraman.



7. Zure inguruneke lekuei eta espezie babestuei buruz informazio zaituz.



8. Gogoratu alde sentikorretan (hegaztiekin habia egin edo deskantsatzeko lekuak) edo abereak dauden tokietan ezin dela txakurra aske eramanda ibili.



9. Natura hondatu gabe ikusi.



10. Erreferente eta aholku iturri bat zara. Zure esperientziak partekatu, eta baita Norberaren Agenda 21 eko zure ideia ere, zure familiako kideekin, lagunekin eta lankideekin.



## Ondorioak

**Norberaren Agenda 21** norbanakoak eta/edo familiak herritar bezala hartzen duen konpromisoa da, era positiboan eta iraunkortasunean lan egiten hasteko. Horretarako, garrantzitsua da informatuta egotea eta hartu nahi dugun filosofia eta bizimoduaren kontzientzia izatea. Tokiko eztabaida bileretan edo taldetan parte hartzeak zeregin horretan lagunduko digu, eta aztarna ekologikoaren kalkuluak gure ingurunean dugun eragina (positiboa edo negatiboa) ulertzen lagunduko digu.

## 4. irudia. Zure aztarna ekologikoa

**Zure aztarna ekologikoa neurtu** Cambio de idioma: Español

Zure bizimodua iraunkorra edo jasangarria dela uste al duzu?

Eta garrantzitsuena: Zer egin dezakezu horrela izan dadin?

Pertsonen erantzukizuna da, neurri adierazgarri batean, gure planeta iraunkortasunerantz edo hondamendirantz bideratzea. Hona hemen, iraunkortasunaren bidetik aurrera egiteko tresna erabilgarria.

Zure aztarna ekologikoaren tamaina aztertu eta eguneroko bizitzan gizarie iraunkoragoaren alde egin ditzakegun gauzak ikuskatu. Gainera, hauek egiteko zergatiak ohartuko zara.

Hurrengo erakundeek ekimena da:



**BFA  
DFB**

Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Ingurumen  
Sala  
Departamento de  
Medio Ambiente



**GLOBAL  
ACTION  
PLAN**



www.vidasostenible.org

Inkesta erraz hauek bete eta zure baliabideen kontsumoa zenbatu ahal izango duzu. Harrituko zara gero!  
Amaitu orduko, "Ikusi emaitzak" botoia sakatu. Orrialde pertsonalizatu bat sortuko da, eta bertan, alda ditzakezun alderdi eta beharrezko neurriak hartzeko jarraibidearen berri emango dizu, urratsez urrats.



**Energia**  
Zure etxeko energia erabileraren azterketa zehatza.



**Ura**  
Kalkulatu zure ur kontsumoaren ehunekoak Euskadiko batez bestekoaren gainean



**Garraioa**  
Kalkulatu urtean zenbat kilometro egiten dituzun



**Hondakinak**  
Neurtu zure etxean sortzen den zarama kopurua

<http://www.tuhuellaecologica.org/>

## Bibliografia erreferentziak eta webgune interesgarriak

- Arana, Xabier. *Agenda Personal 21. Una apuesta por el bienestar, una sociedad más sostenible y la mejora de la biosfera*. Garapen iraunkorrari buruzko Urdaibaiko XII. Jardunaldiak, Eremu babestuetako Ingurumen Hezkuntzari buruzko II Biltzarra. 2007. UNESCO Etxea.
- Arana, Xabier. *Agenda Personal 21. De las grandes palabras a la actuación cotidiana*. Bizkaia Maitea. Bizkaiko Foru Aldundia. 2007ko udaberria.
- Arana, Eiguren. *Agenda Personal 21. La contribución de las personas a un entorno y futuro mejor (eta II)*. Bizkaia Maitea. Bizkaiko Foru Aldundia. 2007ko uda.

*Jarraian, zeure Agenda 21 prestatzeko proposamen bat duzu.  
Anima zaitetz !*



# NORBERAREN AGENDA 21

## ETXEA

- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_

De lo personal a lo global

“Lurra ez da gure gurasoek utzitako  
ondarea, gure seme-alabek utzitako  
mailegua baizik”

Indigenen esaera zaharra



Norberagandik Mundu-mailara



# NORBERAREN AGENDA 21

## LANA

- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_

De lo personal a lo global

“Mundua alderantziz irakurtzen  
dugu eta ezer ulertzeaz kexu gara”

Rabindranah Tagore



Norberagandik Mundu-mailara



# NORBERAREN AGENDA 21

## AISIA

- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_

De lo personal a lo global

“Loreak moztu ahal izango dituzte,  
baina ezingo dute udaberria gelditu”

Pablo Neruda



Norberagandik Mundu-mailara





# NORBERAREN AGENDA 21

## BESTE JARDUERA BATZUK

- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_

De lo personal a lo global

“Tristura handia sortzen du naturak  
gizadiak entzuten ez duen bitartean  
hitz egiten duela pentsatzeak”

Victor Hugo



Norberagandik Mundu-mailara